

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

## 1768

*20/2023 EBAZPENA, martxoaren 29koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariarena, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin betiko zerrenda automatikoki onartu eta epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzen dituen, Herri Kontuen Euskal Epaitegian Auditore Laguntzaile postuak betetzeko.*

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariaren abenduaren 1eko 70/2022 Ebazpen bitartez (abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 248 zk.) lehiaketa bidez lanpostua egonkortzeko ezohiko prozesua deitu zen, karrerako funtzionario moduan Herri Kontuen Euskal Epaitegian auditore laguntzaile plazak betetzeko; lanpostu hori 2022ko ezohiko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio, eta salbuespenezkoa da.

Herri Kontuen Euskal Epaitegian enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikotetan eta oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko da hautaketa-prozesua. Oinarri horiek azaroaren 30eko 67/2022 Ebazpenaren bidez onartu ziren (2022ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarri orokorren seigarren oinarriko 2. atalean ezarritakoaren arabera, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakariaren otsailaren 7ko 08/2023 Ebazpen bitartez prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen. Ebazpen hori otsailaren 17ko 37 zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen eta interesdunei 10 eguneko epea eman zitzaien erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan inork ez du erreklamaziorik aurkeztu eta honenbestez, oinarri-arau berak aurreikusitakoari jarraikiz, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtzen da.

Hori guztiori aintzat hartuta,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Behin betiko bihurtzea enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuan onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda, Herri Kontuen Euskal Epaitegian auditore laguntzaile lanpostuk karrerako funtzionario gisa betetzeko.

Bigarrena.– Zazpigarren oinarri-arauak dio lehiaketan Epaimahai kalifikatzaile batek egingo duela merezimenduen balorazioa eta batzorde horretako kideak izendatuko direla aipatu zazpigarren oinarri-arau horrek xedatzen duen moduan, hau da, Lehendakariaren ebazpen bidez; ebazpen hori EHAAan argitaratuko da.

Hori dela eta, Lehendakaritza honek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 19.3 artikulua eta HKEEren Barne Araubideko Erregelamenduaren 3.4.g) artikulua (EHAAan 2022ko abenduaren 28an argitaratuak) aitortzen dizkion eskumenen indarrez.

2023ko apirilaren 14a, ostirala

Hirugarrena.– Ebazpen honi atxikitako eranskinean zerrendatutako Epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzea.

Laugarrena.– Izendapena EHAAn argitara ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 29a.

HKEEko lehendakaria,  
ANA HELGUERA LÍBANO.

HKEEko idazkari nagusia,  
JULIO ARTETXE BARKIN.

2023ko apirilaren 14a, ostirala

## ERANSKINA

## EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

## Lehendakaria:

Titularra: Ana Mahave Olarte.

Ordezkoa: Iñaki Ruiz Céspedes.

## Batzordekideak:

1.– Titularra: Elena Cordero Zárraga.

Ordezkoa: Carmen Echezárraga Zuluaga.

2.– Titularra: Sonia Sangroniz Bárcena.

Ordezkoa: Susana Ortiz Jauregui

3.– Titularra: Fernando Martínez de Zuazo Letamendi.

Ordezkoa: Juan Carlos Calzada Elorduy.

## Idazkaria:

Titularra: Arantza Martínez de Lagrán Larrauri.

Ordezkoa: Aitor Calzada Uribe